

## Zer jakin beharko zenuke?

- Ordu gehigarri oro gutxienez **7,04€**-tan ordaindu beharra dago.
- Etxeko langile orok **eskubidea** du hilabetero **nomina** jasotzeko **eta** (egoera irregularrean zein segurantsa sozialean alta eman gabe ego narren) **kontratu** bat izateko non bere eginkizun guztiak espezifikatzen diren.
- Etxeko langileek **eskubidea** dute gainontzeko langile guztiak dituzten **jai egun** ordainduetara, **14 egun urtean**, zeinetatik bi, tokiko jaiak diren. Urteko **oporrak 30 egunekoak** dira, alderdien artean adostuko direnak. Langileak eskubidea du hauetatik 15 egunen datak aukeratzeko.
- **Desestimatioaren indemnizazioa** lan egingako **urte bakoitzagatik 12 egunekoa** da. Zaindutako pertsonaren **heriotzaren** ondoriozko kontratuaren **deuseztapenagatik** berriz, **hila-beteko** soldata oso bat.
- Etxeko langileek eskubide osoa dute greba egiteko.

## GEHIAGO JAKIN NAHI BADUZU EDO GURE TALDERA BATU NAHI BADUZU

### JARRI ZAITEZ GUREKIN HARREMANETAN.

@ [trabajadoras.del.hogar@sosracismo.eu](mailto:trabajadoras.del.hogar@sosracismo.eu)

☎ 658 749 756

f Trabajadoras de Hogar de SOS Racismo Gipuzkoa.

Eta legezko edo lan-kontsultarik (doan) behar bazenu deituguzu:



☎ 943 245 626 (Donostia)

☎ 658 749 756 (Errenteria)

☎ 943 33 60 71 (Hernani)

☎ 658 749 755 (Arrasate)



- **Prekarietate eta abusuari EZ.**
- **Etxeko Langileen giza eta lan eskubideen urraketari EZ.**
- **Gizartearen indiferentziari EZ.**



**ISEKULA EZ  
SINATU EZER  
ZURE ESKUBIDEAK  
GUZTIZ ERRESBATZEN  
DITUEN SEGURU  
JAKIN GABE!**



Colaborador:



Errenteriako Udala  
Ayuntamiento de Errenteria



## Nortzuk gara?

Kontratzen gaituzten familien etxeetan zaintza, garbiketa eta bizitza sostengatzera dedikatzen garen emakume kolektibo bat gara, zeina, nagusiki, emakume migrantez osatua dagoen.



Jatorrizko herrialdean dituzten familiak sostengatzeko errekurtso ekonomiko bila migratzera ausartzen diren emakumeak, autosuperazioa bilatzen duten emakumeak, ikasketadun emakumeak, beste bizimodu bat bilatzen duten emakumeak, amets, esperantza eta bizitza propiodun emakumeak.

● Lanik oker eta prekarioenak egitera behartuak gaude.

● Gure lan baldintzak zeharo abusuzkoak dira.

● Kasu askotan tratu txar psikologiko edo/eta fisikoak jasotzen ditugu.

Errealitate honen aurrean instituzio publikoen alde-tik babesgabetasun eta abandonu egoeran gaude. Gizartearen aurrean ikusezin gara. Milaka familien zaintza beharrak soluzionatzen dituen aurpegi gabeko mila besoak gara. “Neska” gara, “hau” gara. Izen bat dugu. Istorio bat. Emakumeak gara. Langileak gara. Gure egoera ezagutu eta bertan identifikatu zaitezten nahi dugu.

## ETXEKO LANGILEOK EXIJITZEN DUGU:

- Lan egindako orduengatik soldata erreala.
- Langabezia prestazioa.
- Soldata errealekin kotizatu.
- Desestimio kaleratzea kendu.
- Iruzurra eta gure lan baldintzak kontrolatuko dituzten lan ikuskatzaile kanpainak.
- Langileen estatutuan aitorpen osoa eta Erregimen Orokorrean integrazioa.
- OIT-aren 189 hitzarmena berrestea.
- 6777 zuzenketaren indargabetzea.

¡LANGILEAK GARA,  
EZ NESKAMEAK!  
ETA ESKUBIDEAK DITUGU!

## Zer jakin beharko zenuke?

- ¿Etxeko langilea zara eta egoera irregularrean zaude? Edozein langilek dituen **eskubide berdinak** daukazazu.
- Gutxieneko soldata 2019an etxeko langileentzako 900€/hilabeteko + bi paga extra oso dira. Honek esan nahi du, 40 orduko kontratu batengatik urteko **gutxieneko soldata gordina 12.600€-koa** izan behar dela.
- **Lanaldi batek** ezin ditu astero **40 ordu** baino gehiago izan, astero **20 ordu presentzial** gehiago egin ahal diren arren, langilea larrialdietarako presente dagoen orduak izanik eta ez benetako lan orduak.
- Ordu **presentzialak**, gutxienez, **lan ordu normalaren preziora ordaindu** behar dira.
- **Gaua igarotzea** aldean artean **adostu** behar da **ordutegi eta ordaintze kontuetan. Ezin da langilea behartu** etxebizitzan gaueko **22:00ak baino lehen** egoten ez eta **inongo lanik** egiten ordu horietan eta **bere logelan egoteko eskubide osoa du** larrialdi justifikatu kasuan ezik.
- Jardunaldien artean gutxienez **12 ordu jarraiko deskantua** egon behar da, **36 ordu libre jarrai astean** eta ordubete bazkaltzeko eta ordubete afaltzeko zeinetan langileak etxetik ateratzeko eskubidea duen.